



**CERTAMEN
LITERARIO
INFANTIL
Y JUVENIL
EN EUSKERA**

XXV

2014

**LITERATURA
LEHIAKETA
HAUR ETA
GAZTEENTZAT
EUSKARAZ**



AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera

Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2014ko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatura lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 184 lan aurkeztu ziren eta epaimahaian pertsona hauek egon ziren:

EPAIMAHAIA / JURADO

Presidentea / Presidenta:

Fátima Sesma Vallés

Epaimahaikideak / Miembros del Jurado:

Alaitz Institutuko irakasleak / Profesorado Instituto Alaitz

Jokin Muñoz

Josu Goienetxe

Saioa Oskoz

Uxue Arbe

Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak / Profesorado C.P.Alaitz

Iñaki Andueza

Jose Luis Ladrero

Sahats-IKA Euskaltegi irakasleak / Profesorado Euskaltegi Sahats-IKA

Ascen Argandoña

Josu Asurmendi

Josu Mujika

Joxerra Olano

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil/juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2014. En total se presentaron 184 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

ARGITALPENA / EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

DISEINUA / DISEÑO

HEDA Comunicación S.L.

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN

Gráficas ALZATE

LEGE GORDAILUA / DEPÓSITO LEGAL

NA 1294-2014

Presentación

En primer lugar daros las gracias a todos los participantes en este certamen literario infantil y juvenil en euskera, ya que sin vuestra participación este certamen no sería posible.

En segundo lugar, quiero felicitar a todos y todas las ganadoras, autores de los cuentos y bertsoes que a continuación quedan reflejados en este libro, escritos por niños, niñas y jóvenes de nuestra localidad, y que con toda seguridad disfrutaréis con su lectura.

No quería dejar pasar esta oportunidad para felicitar y agradecer a todas las personas que de una manera u otra han hecho que esta actividad haya tenido continuidad a lo largo de los años, llegando en 2014 a su XXV edición.

Debido a su buena aceptación seguiremos fomentándolo, ya que gracias a la buena acogida que tiene entre niñas, niños y jóvenes de Barañáin que tienen como una de sus lenguas el euskera, el próximo año convocaremos la 26ª edición, y eso creo que es un signo muy importante.

Os animo a que sigáis enriqueciendo este certamen literario en euskera, y participando en él.

Un cordial saludo y gracias,

Aurkezpena

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet haur eta gazteentzako euskarazko literatura lehiaketa honetako parte-hartzaile guztioi, zuen ekarpenik gabe ez bailegoke lehiaketarik.

Bigarrenik, lehiaketan sarituak izan zareten guztioi, liburuxka honetako ipuinen eta bertsoen egileak zareten herriko haur eta gazteei alegia, zorionak! Lan hauek irakurtzerakoan gozatuko duzuelakoan nago.

Urte urte, era batean edo bestean, jarduera honek jarraipena izatea ahalbidetu duzuenoi ere zorionak eta eskerrak emateko aukera ez dut galdu nahi; izan ere, 2014. urtean XXV. edizioa heldu gara.

Duen harrera onaz jabeturik, beren hizkuntzen artean euskara duten haur eta gazteen artean duen harrera ona ikusirik, euskarazko literatura lehiaketa hau sustatzen jarraituko dugu. Hartara, datorren urtean 26. edizioa antolatuko dugu, eta uste dut nabarmentzekoa dela hori.

Nire animoak helarazi nahi dizkizuet, literatura lehiaketa hau aberasten eta horretan parte hartzen jarrai dezazuen.

Agur bero bat. Esker anitz,



Iz. / Fdo.

FÁTIMA SESMA VALLÉS

**PRESIDENTA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EDUCACIÓN Y DEPORTES
RESPONSABLE DEL ÁREA DE EUSKERA**

**HEZKUNTZAKO ETA KIROLERAKO INFORMAZIO BATZORDEBURUA
EUSKARA ARLOKO ARDURADUNA**



Ipuinak modalitatea

Modalidad **“Cuentos”**

EXTRATERRESTRE GRISA

Asier Jimenez Goicoechea

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Bazen behin extraterrestre bat grisa kolorekoa, Multikolorea planetan bizi zena. Oso triste sentitzen zen denak oso kolore biziak zituztelako. Gauero ametsa egiten zuen: “urdira izan banintz... edo gorrixka banintz...”.

Egun batean telebista ikusten ari zela, konturatu zen lurra planetan ortzadarrek zeudela eta ortzadar bukaeran lapiko handi bat zegoela koloredun saldaz beterik. Orduan erabaki zuen Lurrera joaten, han ortzadarraren gainera igoko zen eta lapikora botako zen. Hurrengo egunean espazio ontzian sartu eta Lurra planetara abiatu zen. Lurreratu zenean harea besterik ez zuen ikusten inguru hartan eta zero argi-argia eta eguzkitsua. Basamortuan zegoela konturatu zen eta ortzadarra lortzeko euria eta eguzkia egin behar zuen. Lehenengo gameluz ibili zen itsasoraino, hortik itsasontziz aireporturaino, han hegazkina hartu eta Bilboraino.

Bilbon taxia hartu eta Barañainera heldu zen. Iritsi zenean euri pixka bat egiten zuen baita eguzki izpi batzuk ere. Halako batean zeruan ortzadar eder bat ateratu zen. Korrika joan zen goraino, han txirrista bat bezala lapikora bota zen, lapikotik ateratu eta hura zen poza, hura! Zazpi kolorekoa zen, polita baino politagoa. Bere planetara itzuli zenean denak bera koloreduna zela ikustean oso pozik jarri ziren.

Handik aurrera lagun pila izan zituen eta zorionsua bizi izan zen.



JUDITHEN URTEBETETZEA

Helene Etxeberria Lujambio

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Orain dela gutxi, Barañainen neskato bat bizi zen. Oso pozik zegoen hurrengo egunean bere urtebetetzea zelako. Judith izena zuen eta bihar 9 urte beteko zituen. Ile horia, begi marroiak eta altua zen. Bere urtebetetzera Iraia A., Helene, Irune T. eta Naroa gonbidatu zituen. Iraia A. ile horia eta begi marroiak zituen, Helenek berriz, ile marroia eta begi urdinak, Irune T. ile marroia eta begi marroiak eta Naroak ile horia eta begi urdinak zituen.

Hurrengo egunean Judithen lagunak bere etxera joan ziren, Tarta jan behar zutenean, tarta lurrera erori zen. Judithek beste tarta bat egin zuen eta oraingoa Heleneren gainean erori zen. Kasualitatea, Helenek bere amaren kamiseta politena zeukala jantzita hautsi egin zitzaion! Jostunarengana joan ziren kamiseta konpontzera baina ez zuten dirurik. Arropa dendara joan ziren baina ez zegoen kamiseta hori. Azkenean pultxerak egitea eta saltzea erabaki zuten. Pultxerak saldu eta dirua lortu zuten. Orduan, jostunarengana joan ziren baina euro bat falta zitzaion. Googlen pultxerak nola egiten ziren begiratu zuten eta pultxera oso arraro bat agertu zen. Iraia A.-k esan zuen:

- Nik badakit pultxera hori egiten.
- A bai? Galdetu zuten denek harrিতuta.
- Bai, nire ahizpak atzo erakutsi zidan.

Eta Helenek esan zion:

- Pultxera hori egin ahal dezakezu?
- Bai, pultxera hori egingo dut.

Azkenean, falta zitzaion euroa lortu zuten eta Heleneren amaren kamiseta konpondu zuten. Den-dena konpondu zuten eta Judithen urtebetetzea ospatu zuten. Hori egia bada barre-barre eta zuk ere esan.



LANERA BERANDU

Joseba Trigo Sierra

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

1º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin Luis izeneko mutiko bat. Barañainen bizi zen. Oso despistatuta zen. Telebista ikustea asko gustatzen zitzaion baina lanera joatea, ordea, ez. Ordenagailuekin lan egiten zuen.

Egun batean lanera joateko hartu zuen autobusaren gasolina bukatu zen. Luis lanera berandu iritsi zen.

-Luis, oso berandu zatoz. Oihukatu zion bere nagusiak. Luis bere ordenagailura joan zen.

-Nola etortzen zara lanera Nikki? Galdetu zion bere ondoko lagunari.

-Ni kotxez, erantzun zion bere lagunak. Hurrengo egunean Luis kotxez lanera joan zen baina zoritxarrez gurpil bat zulatu zitzaion. Luis lanera berandu iritsi zen.

-Berriro berandu! Oihukatu zion nagusiak. Luis bere lekura joan zen.

-Nola etortzen zara lanera, Josu? Galdetu zion Luisek bere lagunari.

-Ni, oinez. Erantzun zion Josuk. Hurrengo egunean lanera oinez joan zen eta garaiz iritsi zen.

-Kaixo nagusi. Gaur garaiz iritsi naiz. Esan zion Luisek nagusiari.

-Bai, Luis baina larunbata da eta ez dugu lanik. Esan zion nagusiak.

-Ups! Ze tuntuna naizen. Esan zuen Luisek.

Hortik aurrera ez zen inoiz gehiago lanera berandu iritsi.

ANE ETA BERE TXAKURRA

Idoia Sabuqui Arenaza

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin, Parisien izeneko neska bat. Oso alaia eta jatorra zen. Begi urdinak eta ile horia zeukana. Etxola txiki batean bizi zen. Pobrea zenez ez zen joaten eskolara eta bere amak erakusten zion. Bere amak Parisen lan egiten zuen eta beti Parisera joan behar zuen. 10 kilometro egin behar zituen.

Egun batean, Ane etxean bakarrik zegoenean norbaitek ateari kox-kox egin zion. Ane bere logelatik jaitsi eta atea ireki zuen. Ireki zuenean ez zuen inor ikusi baina behera begiratzera koan txakur txiki-txiki bat ikusi zuen. Orduan Anek pentsatu zuen bere amak ez ziola txakurra zaintzen utziko eta txakurra gosez zegoenez Anek plater txiki bat eman zion. Oso azkar jan zuen eta Anek esan zion:

-Nire ama ez dagoenean zainduko zaitut.

XXV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Pilota bat hartu eta txakurrarekin joan zen jolastera. Orduak pasa zirenean ama lanetik etorri zen. Orduan Anek txakurtxoari esan zion:

-Txakurtxo, joan eta etorri zaitetz bihar berriro.

Txakurtxoa mendira joan zen. Aneren ama etorri zenean nabaritu zuen janari gutxiago zegoela baina gaua zenez ohera joan ziren. Hurrengo egunean, ama lanera joan zen eta Ane kanpora atera zenean txakurtxoa han zegoen berriro. Janaria eman zion. Anek erabaki zuen txakurrari deitzea Txiki eta txakurtxoari gustatu zionez Txiki deitzen zion. Ane oso gustura zegoen Txikirekin eta ez zen konturatu bere ama zettorrela, lan egiten zuen lekutik. Amak Ane txakurrarekin ikusi zuen eta haserretu zen berarekin, janaria ematen ziolako eta po-break zirenez ezin zion janaria eman.

Orduan zigortu zuen eta txakurrari esan zion ez etortzeko berriro eta Ane oso triste jarri zen. Amak esan zion:


-Ane, ezin diogu janaririk eman ia ez dugulako janaririk.

Anek esan zion txakurtxoari janaria bilatzeko, eta ekartzeko. Txiki janari bila joan zen.

Hurrengo egunean, txakurtxoak kox-kox egin zuen atean. Amak ireki zuen eta txakurra zenez itxi egin zion atea. Baina Anek ireki zuen eta galdetu zion amari:

-Txakurra gelditu ahal da? Ez diogu janaria eman beharko, berak janaria ekartzten baitu. Amak ikusita Aneri asko gustatzen zitzaiola utzi zion gelditzen.

Handik aurrera oso pozik bizi ziren hirurak elkarrekin.



MUSEOAN

Olatz Ganuza Diez

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 5° curso

Bazen behin neska bat Leire deitzen zena, hiru lagun zituen: Irune, Jon eta Xabi. Gauza asko egiten zituzten.

Egun batean museora joan ziren koadroak asko gustatzen zitzaizkielako.

Koadro berriak eraman zituztenean bat gustuko zuten bereziki: Mona Lisarena. Eskolatik ateratzerakoan museora joaten ziren beti.



Larunbatean, Leire bere etxean aspertuta zegoen, orduan museora joatea erabaki zuen. Joan zenean koadroan zerbait arraroa zegoela ikusi zuen baina ez zekien zer zen. Bere lagunei kontatu zien eta korrika eta presaka joan ziren museora baina beti bezala ikusten zuten. Leire ez zegoen konforme, bere begiekin ikusi zuelako. Igande gauean bere lagunekin joan zen, orduan, zur eta lur geratu ziren Leire, Irune, Jon, eta Xabi. Koadroan ere gaua zen. Leirek esan zien bere lagunei sekretua gordetzeko eta misterioa deskubritu behar zutela. Zozketa bat egin zuten museoaren misterioa aurkitzeko. Lehenengo txandan Leire joaten zen goizean, gero jateko orduan Jon joaten zen, Irune arratsaldean joaten zen eta Xabier gauean. Hurrengo egunean patioaren orduan denek kontatu zuten zer ikusi zuten. Leire joan zenean goiza zenez, koadroan ere goiza zen. Jon joan zenean eguerdia zen koadroan. Irune joan zenean arratsaldea zen eta Xabi joan zenean koadroan gaua zen. Hori zen misterioa eta beraiek deskubritu zuten. Hurrengo egunean joan ziren eta koadroa denbora luzez ikusi zuten eta

nola aldatzen ikusi zuten. Orduan laurak aho bete hortz geratu ziren. Museoko zaintzailea komunera joan zenean Mona Lisak begi bat kliskatu zien. Laurak batera galdetu zioten:


-Zuk bizirik ahal zaude?

-Bai, baina bakarrik hitz egiten dut misterioa deskubritzen duenarekin. Erantzun zion Mona Lisak.

Hitz egiten egon ziren denbora luze bat.

-Zin egin behar didazue ez diezuela inori esango. Esan zuen Mona Lisak.

Azkenean oso lagunak egin ziren Mona Lisa eta laurok. Astean lau aldiz Mona Lisa bisitatzea joaten ziren eta zer egiten zuten egunean zehar kontatzen zioten.



ANIMALIEN BABESLEA

Maddi Telleria Leonisio

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Orain dela urte bat, Maialenen aitonak baserri bat zeukan. Maialen oso neska maigarria eta zoragarria zen. Animaliak asko gustatzen zitzaizkion eta egun osoa baserrian egoten zen animaliak zaintzen. Animaliek ere bera maite zuten.

Egun batean, Maialenek pentsatu zuen, lortu zuen diruarekin etxe handi bat erosiko zuela animalientzako. Aitonari esan zion eta animalia bakoitzarentzako gela bat egitea proposatu zion. Maialeni ideia bikaina iruditu zitzaion.

Lau hilabete pasa ondoren, etxea prest zegoen! Maialenek eta aititak animalia guztiak sartu zituzten. Baina Maialen, diru gabe geratu zen eta ezin zituen animalia guztiak zaindu eta elikatu. Animaliak saltzen hasi zen eta oso animalia gutxierekin geratu zen. Maialen kalera joan zen lana bilatzera eta bat-batean, karteltxo bat ikusi zuen

txakur txiki bat galdu zela esanez.

Plaza batera joan zen eta banku batean eseri zen. Oinetan zertxobait sentitu zuen eta zer zen ikustera makurtu zen. Galdutako txakur txikitxo hori zen!

Atzeko hanka bat zaurituta zeukala konturatu zen. Maialenek etxera eraman zuen, zauritxo hori sendatu zion, eta kartelean jarritako telefonora deitu zuen:

-Barkatu, baina, zure txakurra aurkitu dut eta atzeko hanka zaurituta zeukan. La-sai, nik sendatuko dut.

-Aaaiiii! Eskerrik asko, zer egingo nuke zugatik?

Eta ordainsari bezala diru pixka bat eman zion. Maialenek lortu zuen diruarekin, bere etxean egindako logeletan animaliak zaintzeko klinika bat jarri zuen. Jende asko joaten zen animalia gaixoekin eta berak denak sendatzen zituen. Jendea oso pozik zegoenez animalien babeslea izendatu zuten.

ANEREN ABENTURA

Ane Cestau Lerchundi

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 6° curso

Behin batean, bazegoen neska bat, Ane izena zeukana. Ane oso beldurtia zen gauetan eta egun batean ezin zuen lorik egin trumoi ikaragarriak zeudelako. Ezin zuen gehiago eta aitari deitu zion laguntza eske.

-AAAIIIIITTTTTTTTTTAAAA!!!! Oihukatu zuen Anek.

-Zeeer!? Esan zuen aitak erdi lokarturik.

-Ezin dut lorik egin. Aitortu zion Anek.

-Ongi da, nire aitak kontatutako istorio bat kontatuko dizut. Ikusiko duzu nola lokartuko zaren hemendik gutxira. Eta aita istorioa kontatzen hasi zen.

Bazen behin Ane izeneko neska bat. Ane, Leitza izeneko herri batean bizi zen. 11 urte zituen eta lagunekin herrira joatea gustatzen zitzaion. Ane bere amarekin eta bere aitarekin bizi zen Leitzako kanpoaldean.

Egun batean, Aneren lagunak, zinemara joateko geratu ziren. Anek amari galdetu zion:

-Ama, utziko didazu zinemara joaten lagunekin gaur arratsaldean?

-Ez, gaur aitaren autoa konpontzera eraman behar dugu, ez ahal zara gogoratzen? Erantzun zion amak.

-Jo ama, beti gauza bera esaten didazu: Ezetz, ezetz eta ezetz! Bota zion Anek oso haserretuta.

Orduan, Anek bizikleta hartu eta mendira joan zen, haserretuta. Halako batean, euria egiten hasi zen. Ane blai eginda zegoen eta etxera bueltatzen ari zela kobazulo bat ikusi zuen eta pentsatu, amak pentsa dezala nahi duena. Hemen geratuko naiz euria gelditu arte, ez da ezer. Eta horixe egin zuen. Bizikleta kobazuloaren sarreran utzi zuen eta bera barrurago sartu zen.

Bat-batean Anek esku handi bat sentitu zuen bere bizkarrean. Buelta eman

zuen mantso-mantso eta izaki arraro bat ikusi zuen.

-AAAAAAAAAAAAA!!! Oihukatu zuen Anek.

-Hots! Ixo neska. Onak ka, ez du zuri deus egiteko asmorik. Erantzun zion izaki hark.

-AAAAAAA! Orduan ez ahal zaude bakarrik? Gehiago daude? Nortzuk zarete?... Anek erotuta.

-Lasai. Gu Leitzeko pertsonai mitologiakoak ka. Esan zuen bere burua aurkezten. Mikelot nire semea, Mari, nire emaztea, ta ni, Tartalo. Erantzun zion laguntasunez.

-A, barkatu, konfiantza oneko izakiak ematen duzue. Erantzun zuen Anek la-saituta.

-Gera zaitez hemen, kanpoan eurie hai do ta, barra-barra. -Tartalok-. Jolastu Mikelotekin oso lagunak ingo zarete.

Ane konfiantza osoarekin Mikelotekin jolastera joan zen.

-Zenbat urte dituzu? Galdetu zuen Anek.

-Nik 5.917 ditut. Ta zuk? Erran zion Mikelotek.

-Nik 11. Erantzun zion Anek.

-Ala! Nik 11 urte nituenean, oso, oso, oso txikie nitzen, zure eskuaren tamainakoa, nola za hain haundie? Esan zion Mikelotek.

-Ba egia esan, ez dakit. Erantzun zion Anek.

Eta biak barrez jolasten eta hitz egiten hasi ziren. Ane harrituta zegoen pertsonai mitologikoekin zegoelako. Gainera arropa ezberdina zeukaten; larruzkoa, eta hizkera ezberdinez hitz egiten zuten; euskara zaharra.

-Bira, nik aiteri eskatu nahi diot ea uzten din ni beste kobazulo batera bizitzera joan naiteken, baina ez dakit... Esan zion Aneri laguntza eskatuz.

-Ba eskatu. Ziur nago utziko dizula. Erantzun zion Anek.

-Ordun, bale, eskatuko iot. Esan zuen Mikelotek.

Eta esan, eta egin. Biak Tartaloren gana zuzendu ziren eta esan zion Mikelotek:

-Aita, nere uztez ja bastante haundie naz beste kobazulo batea biziteza joateko, ezta?

-Bai, biño etzaude hain prestatue, bakarrik bizitzen hasteko. Erantzun zion Tartalok.

-Jo, aita, beti gauz bera ezaten diezo: Ezetz, ezetz ta ezetz! Erantzun zion Mikelotek haserre.

-Etorri onea Mikelot!!! Bota zion Tartalok oso haserre.

-EZ! Mikelotek haserre.

Eta Mikelot kobazulotik atera zen ziztu bizian. Ane bere atzetik atera zen. Hain beste gauzen artean, euria egiten jarraitzen zuen eta Aneren ama eta aita tailerrean zeuden, autoa konpontzen.

-Itxoin Mikelot! Esan zuen Anek lagundu nahian. -Kobazulora itzuli behar du gu, eta zuk, aitari barkamena eskatu. Ziur nago barkatuko zizula. Gainera bakarrik bizitzen hasteko gai izango zarela uste duzu?

-Ez. Aitortu zuen Mikelotek. -Arrazobea zo goazen kobazulora.

Orduan Ane ohartu zen, gauza antzekoa gertatu zela bere amarekin eta barkamena eskatzera itzuli behar zuela.

Azkenean, Tartalo eta Mikelot bakean zeudela, izaki haiek Ane agurtu zuten. Anek bizikleta hartu zuen eta etxera itzuli zen, bere amari barkamena eskatzeko asmoz.

-Kaixo ama, etxean naiz. Esan zuen Anek.

-Zer, ez ahal daukazu ezer niri esateko? Erantzun zion aurpegi txarrez amak.

-Bai, etorri naiz barkamena eskatu nahi dizudalako, badakit gaizki egin dudala. Horregatik etorri naiz. Esan zion Anek amari.

Amak Aneri barkatu egin zion eta Anek bere amak esaten zuena betetzen eta errespetatzen saiatzen hasi zen.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Barañaingo plazan.

KOLORETXU

Joseba Monreal Mazkieran

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Bazen behin jenderik gabeko mundu bat. Gauza bat bakarrik bazuen, gure munduarekiko aldaketa bat: Gauzen kolorea. Itsaso bareak, gorriak ziren, landareak urdinak, sua berdea, animaliak moreak, harriak horixkak... Istorio hau oooooo aspaldikoa da. Kolore horiek ez ziren oso ongi konformatzen.

Denboraldi bat igaro ondoren koloreak aspertu ziren, manifestazioak egiten zituzten eta oso triste zeuden. Lehen bakarrik 5 kolore existitzen ziren: Berdea, gorria, urdina, horia eta morea. Horrek kolore haien haserre bizia sortu zuen. Denak borrokan hasi ziren, nahasteak eta abar sortu ziren. Horrela kolore gehiago sortu ziren: Laranja, arrosa, beltza, zuria, marroia... Koloreak berdin segitzen ziren, haserre bizian. Egun batean, kolore berdea ideia bat izan zuen:

-Badago errege bat, gure erregea, eta berarengana joan behar gara geure kontua kontatzera!!!

Esan eta egin, azkar kolore guztiak ate batzuetatik pasa ziren eta abentura asko izan zuten. Azkenean, ailegatu ziren eta han zegoen erregea.

-Zer demontre nahi duzue kolore??

-Errege jaunaaa... **BAKEA NAHI DUGU!!!**

Eta berriro erregeak:

-Zertan zabilzate?

-Gure askatasuna nahi dugu, utzi iezaguzu guk erabakitzen ze objektuetan edo ze elementuetan egon gaitzkeen.

Berak baietz esan zuen baina baldintza batekin: koloreen artean bakea izatea.

Erregeak aldaketa haiek egin zituen eta horrela geratu dira: Urdina itsasoetan, berdea landareetan, gorrian suan eta alaitasuna **KOLOREETAAN!**

AMETS GAIZTOEN ARMAIRUA

Carlos Eleta Sánchez

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

1º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Noizbait galdetu diozu zeure buruari zergatik gure gurasoek ez daukaten amets gaiztorik?

Nik badakit. Gauean nire gurasoak hortzak garbitzera joaten dira komunera. Han armairu zahar bat ateratzen dute eta finkoki begiratzen dute armairura eta horrela bere beldurrak ahazten dituzte eta horrela beldurrik gabe, ezin dute amets gaiztorik izan.

Badakit teoria honek ez duela ez hankarik ez bururik baina atzo nire lagun baten etxean egon nintzen eta bere gurasoek gauza bera egiten zuten, hau da, armairu bat finkoki begiratu zuten ere bai.

Gero ikertzen hasi nintzen interneten, zenbait entziklopedietan eta magia liburu eta aldizkarietan baina ez nuen ezer aurkitu. Baina amore eman behar nuen, armairu horri buruzko artikulu bat aurkitu nuen.

Artikuluan armairu magiko bati buruz hitz egiten dute. Armairu honetan gurasoek haien beldurrak sartzen dituzte. Gurasoei armairu hau ematen diete lehen haurra izaten eta argibide batzuekin etortzen da:

ARGIBIDEAK

1. Armairua finkoki begiratu
2. Zeure beldurrei buruz pentsatu.
3. Minutu bat finko begiratzen pasa eta begiak armairutik kendu.

ABISUA

Armairua 18 urtetik beherako umeen ikuspegitik kendu. Ez begiratu armairua 2 minutu baino gehiago edo zure beldurrak hil egingo zaitu.

Artikulu oso luzea da eta ez dizuet dena idatziko baina nahi dut bukaera denok ezagutzea:

“Armairu hau bi arrazoiengatik sortu egin zen. Lehenengoa da, ume batek amets gaizto bat daukanean eta gurasoekin lo egitera doanean, ez ikusteko aita edo ama askoz ere beldurtuagoa dagoela amets gaizto batengatik. Eta bigarrena da, armairu hau sortua izan zela gurasoak egun guztietan amets gaiztorik txarrena ez izateko, hau da, haien beldurrik handiena: haien umeak galtzea.”

ARRATOIA NAIZ

Maialen Areta Atin

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza 1. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Gaur altxatzean arraro sentitu naiz. Bat-batean gose handia neukala konturatu naiz eta sukaldarantz jo dut.

Hozkailuan gazta ikusi eta gogo handiak sartu zaizkit jateko. “Ze arraro, nik gazta ez dut gustuko” pentsatu dut, “ba, berdin da apurtxo bat hartuko dut”. Gazta hartzera nindoanean, norbait zetorrela sumatu dut, nire ama zen. Erratza batekin zetorrela, niri ezkutatzeko gogoak sartu zaizkit. Zulo bat bilatu eta hantxe gorde naiz.

Lekuan egon naiz ama joan den arte. Orduan, pixagura sartu zait eta komu-nera abiatu naiz. Nire etxean katu bat dago, Felix izenekoa, bera ikustean beldurra sartu zait eta logelara abiatu naiz korrika eta presaka. Arropak aukeratu ditut. Jantzen hasi behar nintzenean arropa oso handia geratzen zaidala konturatu naiz. Ispilura begiratzera joan eta arratoi bat ikusi dut!!! Lehenengo aldiz nire arreba Oihanaren txantxa bat zela pentsatu dut baina bat-batean galdera asko etorri zaizkit burura. Zergatik zegoen dena horren handia eta ni hain txikia? Zergatik jan izan nahi nuen gazta? Zergatik ezkututzen nintzen soinu bakar bat entzuten nuenean? Zergatik izan nuen beldurra Felixengandik?

Orain ulertzen nuen dena, arratoi hura neu nintzen!!!!

Zer egin behar nuen orain? Pentsatzen geratu nintzen une batean. Zelako gaitza harrapatu zidan. Ideia bat izan nuen, lo hartuko nuen eta esnatzean arratoi bat edo pertsona bat jarraitzen izaten ikusteko prest egongo nintzen.

Mesedez pertsona, mesedez... Hori egin nuen eta ba ahal dakizue zer? Arratoi bat izaten jarraitzen naiz. Egongo ahal naiz horrela betirako?

Bertso paperak modalitatea

Modalidad “Bertsos escritos”

BARAÑAIN

Beñat Astiz Isasi

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 4º curso

DOINUA: Maritxu nora zoaz.

Nire herri polita
dago Nafarroan
hemen ditut lagunak
beti jolasean
ikasten ari gara
Alaitz ikastolan
Barañain da onena
Niretzat benetan

GAUEAN, IZARRAK

Alejandra Mayordomo Marchena

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Kaixo, Aitor deitzen naiz eta
zortzi urte ditut. Nire aitonaren
etxera joaten naiz maiz.

Nire amona hil zen pasa den
urtean, eta, bisitatzera joaten
naiz nire aitaren kotxean.
Aitonak asko daki izarrei buruz.
Eta istorio harrigarriak kontatzen
dizkit.

Gauean, izarrak ateratzen direla
Zeru ilunean. Hontzak bere kantu
polita egiten dutela, izarrei begira...

Eta, nire Aitona Edmundok, ohean
sartu baino lehen, beti esaten dit:

“Gauean, izarrak
distiratsu eta argitsu
Gauean, izarrak
ilunpean zizarrak.”

TXIMELETA

Idurre Villanueva Del Burgo

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Tximeleta politak
baditu hegalak
hauek badira handiak
ta koloretsuak

Zelaietik hegaka
doa oso alai
ta loretik lorera
saltoka ere bai

Euria egiten du
busti egin zaigu
tximeleta txikia
katarro hartuko du

Azkenik eguzkia
atera egin da
ta gure tximeleta
lehortu egin da



BERTSOLARITZA

Enma Murillo San Miguel

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

I° PREMIO: Educación Secundaria I° ESO

Bertso eskolan ikasten nuen
lehen seigarrengo mailan
Bi irakasle oso jatorrak
Eta gu beti lan ta lan

Batak Saray zuen izena
eta ilea kizkurra
bestea berriz Ainara zen ta
Toby izenez txakurra

Behin eta berriz esan zidaten
oso jatorra naizela
ta ez neukala lotsarik ere
irabaziko nuela.

Egun batean egin genuen
Rap-eko lehiaketa bat
eta oraindik egin nuena
etxean gordeta daukat

Niretzat oso errazak ziren
egindako ariketak
bertsoak dira nire mundua
maite ditut lehiaketak

Nirekin joan zen nire lagun bat
bertsotan zena onena
oso jatorra polita eta
Maidar duena izena

Aurkibidea / Índice

Ipuinak / Cuentos

SARIA / PREMIO **EGILEA / AUTORIA** **ORR. / PÁG.**

Lehen Hezkuntza / Educación Primaria

3. maila / 3º

1. saria	Extraterrestre grisa	Asier Jimenez Goicoechea	5
2. saria	Judithen urtebetetzea	Helene Etxeberria Lujambio	6

4. maila / 4º

1. saria	Lanera berandu	Joseba Trigo Sierra	7
2. saria	Ane eta bere txakurra	Idoia Sabuqui Arenaza	7

5. maila / 5º

1. saria	Museoan	Olatz Ganuza Diez	9
2. saria	Animalien babeslea	Maddi Telleria Leonisio	10

6. maila / 6º

1. saria	Aneren abentura	Ane Cestau Lerchundi	11
2. saria	Koloretxu	Joseba Monreal Mazkiaran	13

Bigarren Hezkuntza (DBH) / Educación Secundaria (ESO)

1. maila / 1º

1. saria	Ametz gaiztoen armairua	Carlos Eleta Sanchez	14
2. saria	Arratoia naiz	Maialen Areta Atin	15

Bertso paperak / Bertsos escritos

SARIA / PREMIO **EGILEA / AUTORIA** **ORR. / PÁG.**

Lehen Hezkuntza / Educación Primaria

4. maila / 4º

1. saria	Barañain	Beñat Astiz Isasi	16
----------	----------	-------------------	----

5. maila / 5º

1. saria	Gauean, izarrak	Alejandra Mayordomo Marchena	16
----------	-----------------	------------------------------	----

6. maila / 6º

1. saria	Tximeleta	Idurre Villanueva Del Burgo	17
----------	-----------	-----------------------------	----

Bigarren Hezkuntza (DBH) / Educación Secundaria (ESO)

1. maila / 1º

1. saria	Bertsolaritza	Enma Murillo San Miguel	18
----------	---------------	-------------------------	----

Antolatzailea / Organiza:



AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera

Babeslea / Patrocina:



Nafarroako
Gobernua



euskara**bidea**